

2023KO KUDEAKETA TXOSTENA

Iruñerrik Ibai Parkea

Ibai Parkea handitzea, Elortz ibaiaren zatian

2023an, Iruñerriko Ibai Parkea handitzeko lanak amaitu ziren Elortz ibaiaren zatian, Zizur eta Galar zendeetan. Zehazki, 6,7 kilometroko luzerako zatia sartu zen parkearen barnean.

Ibai Parkean gauzatutako beste jarduketa esanguratsu batzuk ere aipatu behar dira, hala nola haurrentzako bi parke kokatu izana Ollokin eta Burlatan. Nafarroako Gobernuak haien kostuaren % 80 (23.680 euro) diruz lagundu zuen, Nafarroako Ezagutu Sarearen guneeetan eta ibilbideetan lurralde-garapen iraunkorreko proiektuak gauzatzeko, irabazteko asmorik gabeko erakundeei eta toki-erakundeei laguntzak emateko programaren barnean.

Faunari jarraipena egitea Ibai Parkean

2023an, Ibai Parkean dagoen faunari jarraipena egiteko lanak egiten jarraitu zen, inbasiboak ez diren teknikekin, adibidez, argazki-tranpen bidez. Lan horiek ahalbidetzen dute espezie horien iraupena zaintzea eta bereziki erabilgarriak dira ingurumen-heziketako baliabideak eta jarduerak garatzeko. Hegaztientzako habia-kutxen jarraipena eta hobekuntza ere egin zen, bai hiri-eremuan (Mendillorri), bai landa-eremuan (Ezkaabarte).

Kastore europarrari egiten zaion jarraipena nabarmendu behar da. Espezie babestu horrek presentzia handia du Ibai Parkean. Arreta berezia jartzen da zuhaitzetan eragiten dituzten kalteetan, zuhaitz horiek erortzetik erator daitezkeen arriskuak minimizatzeko xedearekin.

Ezkaabako Eskualde Parkea

Ezkaabako Eskualde Parkeak gutxi gorabehera 1.000 hektareako hedadura du, eta bere garapen-eremuak zortzi udalerrri hauetako lurra hartzen ditu: Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Txulapain, Ezkaabarte, Atarrabia, Iruña eta Uharte. Udal horiez gain, Eskualde Parkea sustatzean kontzeju hauek ere parte hartu dute: Artika, Berriogoiti, Aitzoain, Untzu, Arre, Azotz, Orrio, Zildotz eta Orikain.

2022aren bukaeran Ezkaabako Eskualde Parkea onartu ondoren, 2023an, bilerak hasi ziren Parkea eratzen duten toki-erakundeekin, finantzaketa-sistema eta zerbitzu berri hau kudeatzeko prozedura ezartzeko helburuarekin. Jarduteko ildo nagusi moduan nabarmendu behar da Nafarroako Gobernuarekin egiten ari den lana, elkarrekin garatzeko Ezkaabako Suteen Plana, zeinak modu globalean aztertuko duen gunehori, toki-erakunde guztiek dauzkaten sute-planekin koordinatuta.